



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko uztailaren 23a

76. ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A :

Galderak:

- Galdera, Osasun Departamentuaren 2009rako aurrekontuan aldatutako zenbait kontusaili buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari 255/2007 Foru Dekretuari jarraikiz kontratuen arloan transferitu beharreko eskumenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, garapenerako lankidetzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, jakiteko zertan oinarritu zen Nafarroako Gobernua 2009rako aurrekontu orokorren proiektuko dirusarreraren atala prestatzeko. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Irabia ikastetxeak beste ikastetxe bat eraikitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, jakiteko ea La Olivako monasterioko fraide zistertarrei monasterioaren lurren eta instalazioen erabilera laga zaien. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Iberbanda enpresak Nafarroa iparraldean dituen arazoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Lizarrako iparraldeko saihebidetaren gaineko azterlanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, PA-30 errepideko 10. kilometrotik 13. kilometrora bitarteko zatiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak, beste departamentu batzuekin batera, gure erkidegoko turismo sektorea sustatze aldera abiarazitako ekimenei eta ekintzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua krisiari aurre egite aldera turismo sektoreari dagokionez hartzen ari den neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Legegintzaldi honen hasieratik hona % 1 kulturala programara aurkeztutako jarduera-proiektuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Nafarroako herrietan dauden karobiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, eremu mistoan eta euskaldunean irrati-frekuentziak gaitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

- Galdera, Osasun Departamentuak Zangozako osasun etxeko errotulazioa gaztelania hutsean jartzeko arrazoiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, A ereduko ikastetxe publikoetako ikasleek lortzen duten gaztelania, euskara eta ingeles mailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, B ereduko ikastetxe publikoetako ikasleek lortzen duten gaztelania, euskara eta ingeles mailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, British ereduko ikastetxe publikoetako ikasleek lortzen duten gaztelania, euskara eta ingeles mailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, D ereduko ikastetxe publikoetako ikasleek lortzen duten gaztelania, euskara eta ingeles mailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, G ereduko ikastetxe publikoetako ikasleek lortzen duten gaztelania, euskara eta ingeles mailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, jakiteko nola egiten den Eliza Katolikoaren eta gizarte-intereseko beste xede batzuen arteko banaketa, zergadunak bi laukitxoak markatzen dituenen. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, ibilgailuetako aurreko eta alboetako leihoetako beira eguzki-fotobabesleak homologatzeko esku-menari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Nafarroako III. Enplegu Planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Tracasako akziodunetan 2003tik aitzina izandako aldaketei eta aldaketa horien arrazoiei eta irizpideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren eta finantza-entitateen arteko lankidetzaren hitzarmenaren karietara Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak baimendutako maileguei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren eta finantza-entitateen arteko lankidetzaren hitzarmenaren karietara banke-
txeek emandako eta ukatutako maileguei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, Iruñerriko bionergia arloko enpresa bati 600.000 euroko abala eman izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak asmorik duen Gergitiaingo San Martin eliza Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Lehen Hirurteko Planean sartzeko. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Osasun Departamentuaren 2009rako aurrekontuan aldatutako zenbait kontusaili buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Osasun Departamentuaren 2009rako aurrekontuan aldatutako zenbait kontusaili buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko otsailaren 27ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du aldaketarik izan duten 2009ko aurrekontuko kontusailei buruz (PES-056/08). Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Aipatu lanpostuen ordainsaria aurrekontuei buruzko Foru Legean ezarritakoa da, eta horiek ezin dira aldatu.

541 programa. Laguntza Espezializatua, goi-karguen ordainsaria; kontusail honetan, kargu hauen ordainsariak barne hartu dira:

- Laguntza Espezializatuko zuzendaria
- Laguntza Espezializatuko zuzendariordea
- Gizarte eta Osasun Planaren koordinatzailea
- Medikuntza Gune Teknologikoaren zuzendaria
- Berrikuntza eta Kalitateko zuzendariordea
- Ikerketa Biomedikoko Zentroaren zuzendaria

541 programa. Anbulatorioak, goi-karguen ordainsaria; kontusail honetan, kargu hauen ordainsariak barne hartu dira:

- Laguntza Anbulatorioa Koordinatzeko zuzendariordea
- Anbulatorioak eta Ospitalez kanpoko Laguntza Kudeatzeko zuzendaria

Itxarote-zerrendak murrizte aldera aldi baterako kontratatutako langileen ordainsariak. Anbulatorio horietan, Virgen del Camino Ospitaleari, Nafarroako Ospitaleari eta Ubarmin Klinikari atxikitako medikuek egiten dituzte kontsultak. Zeregin horretan lana areagotzen denean, erizain gehiago behar izaten dira, eta zerbitzu zentraletan eta onarpen zein artxibo eta txostenen unitateetan baliabide gehiago paratu. Kontuan izan beharreko datuak:

2008an 911 pertsona kontratatu dira urte osoan zehar, hau da, hilean 76 batez beste.

Guardiak egiteagatiko osagarriak. Nafarroako Ospitaleko aurrekontuari dagokio, eta, beraz, beste programa bati, zehazki 542 programari.

Guardiak egiteagatik baimendu den gehieneko gastua da; aparteko orduen ordainketarekin inolako zerikusirik ez du, hori beste lansari-azalpen bat baita.

543 programa, Virgen del Camino Ospitalekoa

– Funtzionarioen guztizko ordainsariak igo egin dira, honakoak barne hartu direlako:

Soldaten urteko igoera (2009-03-06).

Erizaintzako lanbide-ikasketak.

Erradiazio ionizatzaileen eta agente biologikoen eraginpean egoteagatiko osagarrien ordainketak.

Oro har, Osasunbidea–Nafarroako Osasun Zerbitzu osorako, itxarote-zerrendak murrizte alde-

ra aldi baterako kontratatutako langileei ordainketari dagokionez, honakoa jakinarazten dugu:

2007az geroztik, itxarote-zerrendak murrizteko bi jardunbide jarraitu dira:

– Ahal denean, kanpoko langileak kontratatzea.

– Bertako langileen laneguna luzatzea; produktibitate aldakorreko azalpenaren arabera ordaintzen zaie horiei.

2009an, zentroek kopuru jakinak zituzten itxarote-zerrendak murrizteko, eta kontusailaren zatirik handiena Osasunbidea–Nafarroako Osasun Zerbitzuaren Zerbitzu Zentralen esku dago; aparteko programak baimendu ahala banatzen dira zentroetan kopuruok.

2009rako, itxarote-zerrendak murrizteko aurrekontua honela kudeatu da:

– Kanpoko langileak kontratatzeke, lerroak 2008ko gastu errealerara egokitu dira; beraz, zentro-

etarako kontusailak igo dira, eta hein berean jaitzi Zerbitzu Zentraletan horretarako dauden baliabi-deak.

– Laneguna luzatzeko, Osasunbidea–Nafarroako Osasun Zerbitzu osoaren hornidura Zerbitzu Zentraletan mantendu da, eta kopuruak zentroetara banatzen dira haiei horretarako baimentzen zaizkien programen arabera.

Horrela azaltzen dira, galderak eskatu moduan, zentroetan izan diren hazkundeak.

545 programa, Tuterako Osasun Eremua

– Gaur-gaurkoz, 6 mediku kontratatzeke beharra ikusi da Tuterako Eremuko Osasun Zentroetarako, aipatu kontusailaren kargu.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko martxoaren 13an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari 255/2007 Foru Dekretuari jarraikiz kontratuen arloan transferitu beharreko eskumenei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari 255/2007 Foru Dekretuari jarraikiz kontratuen arloan transferitu beharreko eskumenei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko martxoaren 6ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du abenduaren 17ko 255/2007 Foru Dekretuaren arabera laguntza, telekomunikazio eta segurtasuneko kontratuei dagokienez eskumenak Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari emateari buruz (PES-063/09). Hona hemen

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Aurreko legealdian, gaur egungo departamentu-egituraz, hornidura- eta laguntza-kontratuak egiteko eskumenak apirilaren 19ko 173/2004 Foru Dekretuak arautzen zituen. Legealdi honetan, eta departamentuen eskumenetan izan diren aldaketengatik (abuztuaren 20ko 57/2007 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuen oinarritzko egitura ezarri zuena, betez), dekretu haren ordezkari bi xedapen paratu dira: abenduaren 17ko 255/2007 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan laguntza-kontratuak egiteko eskumenak berrantolatu zituen, eta Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren abenduaren 17ko 422/2007 Foru Agindua, hornidura kontratuei buruzkoa.

Berrikuntza nagusia, beraz, formala da: lehen, xedapen batean arauturik zegoen, eta orain bitan dago. Baina, funtsean, ordezkatzeko duten 173/2004 Foru Dekretuaren edukia barne hartzen dute bi xedapenek.

Horrenbestez, eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari buruzko galderei dagokiez, argitu behar da, alde batetik, 255/2007 Foru Dekretuan ezarritako laguntza-kontratuaren gaur egungo eskumen-esleipenaz, departamentu honek mantendu egin dituela lehendik –indarrean zegoen pertsona, eraikin zein instalazio eta ibilgailuen segurtasunari buruzko araudiari jarraiki– era zentralizatuan kudeatzen zituen eskumenak; eta, bestetik, 57/2007 Foru Dekretuaren 1.4 artikuluan ezarritakoa betez, bere egin dituela ordura arte Informazioaren Gizarterako Zuzendaritza Nagusiak informatika- eta telekomunikazio-baliabideen alorrean zituen eskumenak; aipatu zuzendaritzaren ordezkari eratu da, hain zuzen ere, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko Moderni-

zazio eta Administrazio Elektronikoaren Zuzendaritza Nagusia.

Horregatik, funtzioak eta eginkizunak nahiz giza baliabideak edo baliabide materialak berariaz berrantolatzeko beharrik ez da izan, eta, galderak aditzera emandako zentzuan, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuan ez da gastu gehigarririk izan.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:
Javier Caballero Martínez

Galdera, garapenerako lankidetzari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du garapenerako lankidetzari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko otsailaren 20ko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko martxoaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du garapenerako lankidetzari buruz (PES 50-09). Hona hemen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Lehendabiziko galderari dagokionez, aldezkiz aurretiko zenbait oharpen egin behar dira:

Pentsatzekoa da Nafarroako Gobernuak Garapenerako Laguntza Ofizialera (GLO) bideratzen duen portzentajeaz galdetzen duela parlamentu-taldeak, hau da, Nafarroako Gobernuak kudeatutako garapenerako lankidetzarako funtsak Nafarroako Barne Produktu Gordinarekiko (BPG); izan ere, Nazio Produktu Gordina (NPG) makromagnitudo ekonomiko bat da, estatuz azpiko lurraldeei aplikatzen ez zaiena.

Bestalde, galdera beraren bigarren zatian dagokionez (GLO portzentajea Nafarroako Aurrekontu Orokorrarekiko), aintzat hartu behar da geroago parlamentu-talde horren bigarren galderari ematen zaion erantzuna; alegia, kalkuluak ez direla egiten Nafarroako Aurrekontu Orokorrarekiko, baizik eta Nafarroako Gobernuaren gastuei aplikagarri zaien zatiarekiko.

Adierazitakoa kontuan izanik, eskatu diren datuak hauek dira:

Concepto	2007	2008	2009
PIB de Navarra a precios de mercado a precios corrientes (PIB)*	18.428.503.000,00	19.471.592.000,00	19.257.404.488,00
PGN INICIAL CON GF (PGNi)	3.901.334.547,00	4.287.328.089,00	4.301.755.030,00
PGN INICIAL SIN GF	3.519.579.547,00	3.878.991.829,00	3.859.455.030,00
GASTOS FINANCIEROS INICIAL	30.505.553,00	28.678.909,00	46.554.975,00
TRANSFERENCIAS EELL INICIAL	348.597.883,00	410.560.881,00	358.982.711,00
APORTACIÓN ESTADO INICIAL	566.244.897,00	596.001.006,00	531.966.772,00
PRESUPUESTO DE GASTOS INICIAL (PNNi)**	2.574.231.214,00	2.843.751.033,00	2.921.950.572,00
AYUDA COOPERACIÓN DESARROLLO INICIAL (AODi)	19.039.605,00	22.842.346,00	21.765.150,00
% AOD/PIB - crédito inicial	0,10%	0,12%	0,11%
% AOD/PGN - crédito inicial	0,49%	0,53%	0,51%
% AOD/PNN - crédito inicial	0,74%	0,80%	0,74%

Egindako bigarren galderari dagokionez, Nafarroako Gobernuak garapenerako lankidetzarako egindako ekarpenaren kalkulua (Nafarroako Gobernuaren GLO) Parlamentuaren 1994ko urriaren 25eko Ebazpenari (Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofiziala, 24. zk., 1994ko urriaren 28koa, 9. or.) jarraiki egiten da; beraz, Nafarroako Aurrekontu Orokorreko gastuen guztizkotik kentzen dira finantza-gastuak, Estatuari emandako kopurua eta Toki Entitateei egindako transferentziak (aurreko taula "Nafarroako Gobernuaren Gastuen Aurrekontua" deitutakoa da). Bestalde, 2995eko urteaz geroztik, kontabilitate-irizpideetan aldaketa bat egin delarik, zerga-gastuak ere sartzen dira gastu gisa, eta, beraz, kalkuluak egiteko orduan horiek ere kendu egin behar dira.

Azkenik, egindako azken galderari dagokionez, adierazi behar da, bizi dugun egoera ekonomikoak 2009ko Nafarroako Aurrekontu Orokorra taxutzeko ildoak nabarmen baldintzatu dituen arren, gastuen aurrekontuaren %0,74 bideratu duela Nafarroako Foru Komunitateak garapenerako nazioarteko lankidetzara.

Azpimarratzekoa da GLOren arloan egin dugun ahalegin ekonomikoa, esparru horretan Nafarroa autonomia-erkidego guztien buru baita. Azken datu ofizialak 2007koak dira (gauzatutako aurrekontuei dagokienez), eta, 2008 eta 2009ko balioespenen arabera, Nafarroak leku berean jarraituko du:

AEEE	GLO biztanleko
Nafarroa	32,85
Gaztela-Mantxa	18,77
EAE	18,36
Balearrak	17,08
Valentzia	17,04
Asturias	13,12
Errioxa	12,11
Katalunia	10,32
Andaluzia	10,14
Kantabria	9,70
Extremadura	9,37
Kanariak	8,92
Aragoi	6,32
Madril	6,16
Gaztela eta León	4,47
Galizia	3,65
Murtzia	2,63

Horrez gain, garrantzitsua iruditzen zaigu nabarmentzea gaur egun nazioarteko foroetan (ELGaren Garapenerako Laguntza Batzordean, Europar Batasunean eta Nazio Batuen Garapenerako Programan, besteak beste) eztabaida ez dela hainbeste guztizko kopuruen ingurukoa, baizik eta garapenerako lankidetzaren eraginkortasun eta kalitatearen ingurukoa; izan ere, ahalegin ekono-

mikoa egitea bezain garrantzitsua da hura kalitatez egitea, eta horixe da, hain zuzen, departamentu honen ardurapeko Nafarroako Lankidetzaren Plan Zuzentzaileaz egin nahi dena.

Iruñean, 2009ko martxoaren 9an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, jakiteko zertan oinarritu zen Nafarroako Gobernuaren 2009rako aurrekontu orokorren proiektuko dirusarreraren atala prestatzeko.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du jakiteko zertan oinarritu zen Nafarroako Gobernuaren 2009rako aurrekontu orokorren proiektuko dirusarreraren atala prestatzeko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko otsailaren 20ko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko martxoaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du 2009. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorren Proiektuko diru-sarreraren atala lantzeko orduan Nafarroako Gobernuak baliatu zituen irizpide, adierazle, datu eta aurreikuspenei buruz (PES-52). Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Ohikoa den moduan, 2010. urterako diru-sarreraren balioespenak egin ziren zerga-sarrerak kalku-

lantzeko teknikak eta parametroak zerga-azalpen guztietan aplikatuz.

Zehazki, hauek aplikatzen dira:

- Parametro eta magnitude makroekonomiko orokorrak (BPG, enplegua eta BPGren deflaktorea, besteak beste).

- Sektore eta kontsumo jakin batzuei buruzko parametro eta magnitudeak (hidrokarburoak, tabakoa, etxebizitza eta ibilgailuak, besteak beste).

- Arauen aldaketek sor ditzaketen zerga-kosten simulazioak, horiek diru-sarreraren aurrekontuetan eragin dezaketenean (esaterako, "440 euroen" erreforma).

- Dagokion urtean eta aurreko beste batzuetan zerga-azalpenek izan dituzten bilakaera eta joeren azterketa eta aplikazioa.

- Ohiko eta ezohiko diru-sarreraren banakapena.

- Azkenik, zerga-sarreretan eragin dezakeela iritzi zaion beste edozein datu, parametro edo teknika.

Iruñean, 2009ko martxoaren 18an

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, Irabia ikastetxeak beste ikastetxe bat eraikitzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Irabia ikastetxeak beste ikastetxe bat eraikitzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko martxoaren 6ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra–Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Donapeako Udalez Gaindiko Sektore Planari (UGSP) buruz, eta zehazki han parartzekoa den hezkuntzarako lurzati pribatuari buruz. Hona hemen Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

Zein informazio du Gobernuak azpiegitura pribatu horri buruz?

UGSPren azken diseinuan, plana jendaurrean paratu ondoren aurkeztua, sustatzaileak hezkun-

tza-erabilerako zuzkidura-lurzati pribatu bat sartu zuen, PD-8 izenekoa, 9.330 m²-koa.

Proposamen horrek, gainera, zuzkidura publikoetarako lege ezarritako estandarrak gainditzen ditu. Beraz, lurzati hori ekipamenduetarako lurzoru publikoaren erreserban sartu da; edonola ere, aurkeztua izan zenetik jasotzen zuen UGSPk lur hori.

Ez Zuzendaritza Nagusiak, ez Lurraldearen Antolamendu Batzordeak eta ezta Nafarroako Gobernuak ere, ez dute proposamen horrek aurka ezertxo ere aurkitu.

Irabia Ikastetxeak egin al du bertan ezartzeko eskaerarik, etorkizunean Donapeako plana garatzen denean?

UGSPren espedientean ez dago horri buruzko informaziorik, eta ez du zertan egon ere.

Ikastetxeak baimentzeko erregimenari dagokionez, Irabia Ikastetxeak ez du Hezkuntza Departamentuan horren gaineko eskaerarik aurkeztu.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 181. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko martxoaren 24an

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: José Carlos Esparza Sáez

Galdera, jakiteko ea La Olivako monasterioko fraide zistertarrei monasterioaren lurren eta instalazioen erabilera laga zaien.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak galdera egin du jakiteko ea La Olivako monasterioko fraide zistertarrei monasterioaren lurren eta instalazioen erabilera laga zaien.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko martxoaren 13ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernuak lagapenik egin ote dion inoiz La Olivako monasterioko monako zistertarren komunitateari, lagapen ekonomikoaren eskubideak zuzenean kobra ditzan edo haren onuradun izan dadin (PES-71/09). Hona hemen Vianako Printzea Erakundea–Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Ez.

Getafeko San José de Val komunitate zistertarrak multzo osoa erosi zuen eta haren jabe egin zen 1926ko maiatzaren 24an. Eliza berreraikitze lanak berehala hasi ziren, Foru Diputazioaren dirulaguntzaz, monakoen lanaz eta pertsona pribatuen ekarpenez; alabaina, behin betiko berreraikuntza Estatuak burutu zuen, eta horretarako zenbait aurrekontu prestatu ziren 1930 eta 1932 artean.

Laguntza ematera eta kontserbazio- eta zaharberritze-lanak egitera mugatu da Nafarroako

Gobernuak La Olivan izan duen esku-hartzea, dituen eskumenen baitan.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko martxoaren 23an

Kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Iberbanda enpresak Nafarroa iparraldean dituen arazoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Iberbanda enpresak Nafarroa iparraldean dituen arazoei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko martxoaren 6ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Iberbanda enpresa Nafarroaren iparraldean ematen ari den zerbitzuari buruz (PES-059/09). Hona hemen Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

1. Nafarroako Gobernuak ezagutzen ditu zonalde horretako Iberbandako bezeroak jasaten ari diren arazoak eta zerbitzu-eteteak.

2. Zerbitzu-eteteak gertatu dira Opatel enpresak kudeatzen duen garraio-sarean arazo teknikoak izan direlako, zehazki Ezkaba mendia-Aralarko San Migel irrati-loturan.

Eguraldiaren makurra dela-eta, ezinezkoa izan da arazoak konpontzea, ezin izan delako Aralarko San Migelen dagoen zentrorra iritsi nahiz dorrean lan egin; izan ere, laneko arriskuak saiheste aldera, ez da posible dorre izoztuetan edo haizete handiak daudenean lan egitea.

3. Egoera ikusirik, beste zerbitzu bat sortzea erabaki dugu. Horretarako, behar den erreduntzia sortu da bi irrati-lotura berri (Gorramendi-Belate eta Belate-Olague) ezarriz; horrenbestez, iparraldeko trafikoa Iruñeraino garraiatzeko bi bide daude orain.

- Gorramendi-San Migel-Ezkaba.

- Gorramendi-Belate-Olague-Ezkaba.

Bide berria otsailaren 27an jarri zen martxan (urtarrilaren hasieran jartzekoa zen, baina, berriro ere eguraldiagatik, ezinezkoa izan da zentroetan egin beharreko lanak egitea).

4. Iberbandak gaurdaino egin zaizkion erreklamazioak aintzat ez hartu izanaren berririk ez dugu.

Iruñean, 2009ko martxoaren 23an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

Galdera, Lizarrako iparraldeko saihebidereen gaineko azterlanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Lizarrako iparraldeko saihebidereen gaineko azterlanari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko martxoaren 24ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Angel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Lizarrako Ipar Saihebidereen Informazio Azterketaren esleipen eta idazketari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Herri Lanen zuzendari nagusiaren martxoaren 21eko 326/2007 Ebazpenaz, "Lizarrako Ipar Saihebidereko Alternatiben Azterketa" idazteko lana esleitu zitzaion Miguel Angel Ederra, Servicios de

Ingeniería Civil, S.L. (Maesic) enpresari; lanak 68.556,00 euroko (BEZ barne) aurrekontua du, eta gauzatzeko epea, berriz, 8 hilabetekoa.

Herri Lanen zuzendari nagusiaren urtarrilaren 11ko 49/2008 Ebazpenaz onartu zen azken ziurtagarria egitea eta Maesic enpresari lanak ordaintzea, zehazki 68.556,00 euro (BEZ barne).

Espedientean jasota dagoenez, agindu, landu eta kitatutako lana Alternatiben Azterketa bat da, eta ez Informazio Azterketa bat.

Aipatu Alternatiben Azterketaren kopia gehitu dugu.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko Testu Bateratuaren 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko martxoaren 24an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

(Oharra: aipaturiko eranskina foru parlamentarien eskura dago 7-08/PES-00079 espedientean, ondoko web helbidean hain zuzen:

<http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/>

Galdera, PA-30 errepideko 10. kilometrotik 13. kilometrora bitarteko zatiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du PA-30 errepideko 10. kilometrotik 13. kilometrora bitarteko zatiari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko martxoaren 24ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du PA-30 errepidean hobekuntzak egiteko aukerari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Errepideen II. Plan Zuzentzailean (2002-2009) jasota dago "133, Ollokiko Ekialdeko Ingurabidea-Arreko Biribilgunea Banatzea"; jarduketara hori ez da oraindik egin, eta Errepideen III. Plan Zuzentzailean (2009-2016) programatuko da.

Asfaltoaren egoera ikusirik, eta kontuan izanik banatze-jarduketa ez dela seguruenik 2010. urtea baino lehenago hasiko, honakoa erabaki da:

1.- 2009. urtean egin beharreko bide-zoruak sendotzeko lanen baitan, programaturik dago PA-30 errepidekoa –Iruñeko ingurabidea–, 10 eta 13 kilometro-puntuen artean (NA-135 errepidearekiko elkargunea eta Arreko ingurabidea, hurrenez hurren).

2.- Jarduketa hori gauzatzeko pentsatu da hantzen ageri diren zuloak fresatzea eta horietan aglomeratua beroan zabaltzea, eta galtzada osoan esne bituminosoa (slurry) zabaltzea.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko martxoaren 23an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak, beste departamentu batzuekin batera, gure erkidegoko turismo sektorea sustatze aldera abiarazitako ekimenei eta ekintzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak, beste departamentu batzuekin batera, gure erkidegoko turismo sektorea sustatze aldera abiarazitako ekimenei eta ekintzei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko martxoaren 6ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Kultura eta Turismo Departamentuak, Nafarroako Gobernuaren beste departamentu batzuekin batera, turismoaren sektorea sustatzeko aurrera eraman dituen ekimen eta ekintza guztiei buruz (PES-60). Hona hemen Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua

Bertizarana, Erronkari eta Otsagabiako Interpretazio Zentroen eta Turismo Bulegoen baterako kudeaketa.

“Hegaztien Behaketa Nafarroan” turismo-eskaintzaren kluba.

Departamentu honek laguntzak ematen dizkie nekazariei, beren lanak turismoarekin zerikusia duten jarduerekin dibertsifika ditzaten; laguntzak eskaintzen dira jarduerak Kultura eta Turismo Departamentuaren irizpideekin bat etorri eta eraginkorrak izan daitezen. Lehendabiziko aldiz, bete beharreko baldintza gisa ezarri da Kultura eta Turismo Departamentuak derrigorrez eskarien berri ematea.

Turismoa eta Gastronomia sustatzeko lankidetzaproiektua 2009rako.

Hezkuntza

Bi departamentuak elkarlanean aritu gara turismo-ikasketak sustatzeko, Nafarroan Turismo Diplomatura bat ezartze aldera, NUPekin lankidetzan. Horretarako, Hezkuntza Departamentuari eskatu genion aipatu ikasketak ezar ditzala, eta erantzunaren esperoan gaude.

Erakundeekiko Harremanak

Turismo-argitalpenen plana editatu eta inprimatzea.

Informazio turistikoko gune bat paratzea Nafarroaren Madrilgo Gobernu Ordezkaritzan.

Turismoari buruzko datu-base eta webguneen edukiak garatzeko eta kudeatzeko plana. Kudeaketa eta jendearen arretan teknologia berriak txertatzeko proiektua.

Nafarroari buruzko publizitate turistikoa sustatzeko programa. Publizitatean sormena lantzea, eta hedabideen plana diseinatu eta gauzatzea.

Argitalpenak saltzea, Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtzarekin elkarlanean.

Toki Administrazioa

Turismoari buruzko webgunean aisiaren inguruko edukiak kudeatzeko eta informazio turistikoko call center zerbitzuaren (848420420 telefono-zenbakia) kudeaketa sustatzeko lankidetzaprograma.

Herri Lanak

Nafarroako atlasa egiteko lankidetzaproiektua.

Nafarroako mugari turistikoen seinaleztapena. Seinale turistikoak, horien ezaugarriak eta kokapena bi departamentuek zehaztu eta ebatzi dituzte, urte anitzeko plan bati jarraiki; plan hori urtez urte zehazten da, Kultura eta Turismo Departamentuak Herri Lanen Departamentuari egindako mandatu baten bidez. Lankidetzari Santiago Bidean ere islatu da: Bidearekin bat egiten duten errepideen gurutzaguneak berriaz seinaleztatu dira, erromesen segurtasuna areagotzeko eta bermatzeko.

Berrikuntza

Iruñeko Turismo Bulegoan kontsumitzailearentzako Europari buruzko informazio-gune bat paratzea.

Gizarte Ongizatea, Kirola eta Gaztedia

Marka turistikoa erabiltzea kirol-taldearen babesean, kirol-instalazioetan eta Nafarroako turismoa sustatzeko ekitaldietan.

Osasuna

Bi departamentuak elkarlanean ariko dira Santiago Bidea eta erromesen arreta hobetzeko, eta, zehazki, erromesen osasuna bermatzeko; horretarako, osasun-laguntzari buruzko informazioa hobe-

tuko da eta eskuragarriago jarriko, aterpetxeetan lo egiten duten erromesek osasun-laguntzako telefonoak erabil ditzaten sustatuko da eta osasunaren ikuspegitik Bidea hobeto egiteko informazioa eskainiko da. Elkarlana are estuagoa izanen da, oraindik, 2010 Done Jakueren urtean.

Lurraldearen Antolamendua eta Etxebizitza

Nafarroako kanpinei buruzko dekretu berria, luze gabe argitaratzekoa dena, idazten laguntzea. Departamentua laguntzen ari da Lurraldearen Antolamendu Planen idazketan, horretarako jasotzen dituen argibideei jarraiki eta betiere turismoaren arloari dagokionez.

Pirinioak Garatzeko Plan Estrategikoa

Pirinioak Garatzeko Plan Estrategikoa departamentu artekoa da, eta haren helburua da aipatu zonaldeari bultzada bat ematea garapena sustatzeko. Horretarako, Plana koordinatzen duen organoarekin elkarlanean ari da Departamentua, eta berriazko 2 aurrekontu-sail eratu ditu Pirinioen Planean xedatutako helburuak lortzeko; zehazki, IV. eta VII. kapituluetakoa jarduketan inbertituko du, Nafarroako eremu hori sustatzeko beste deialdi batzuetan proposatutakoen osagarri izanen diren zenbait jarduketa bultzatuz. Koordinazio-organorekiko lankidetzari esker, premiak hobeto identifika daitezke eta abian jarritako jardueren jarraipen hobea egin daiteke.

Ekonomia eta Ogasuna

Aurrekontuko gastu guztien eta kudeaketaren kontu-hartzea.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko martxoaren 30ean

Kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua krisiari aurre egite aldera turismo sektoreari dagokionez hartzen ari den neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua krisiari aurre egite aldera turismo sektoreari dagokionez hartzen ari den neurriei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko martxoaren 6ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Kultura eta Turismo Departamentuak, turismoaren sektoreari dagokionez, krisiari aurre egiteko hartu dituen neurriei buruz (PES-61). Hona hemen Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak eta Alderdi Sozialistak hitzartutako planean –Plan Navarra 2012– jasotako inbertsio turistikoek gain (entzierroaren eta sanferminen zentro tematikoa, Santiago Bidea egokitzeko plana, Orreagako aterpetxea eta abar), Kultura eta Turismo Departamentuak neurri-sorta berri bat aurkeztu zuen 2008ko maiatzaren amaieran, ekintza berriak, lehendik abian jarritakoen osagarriak, proposatuz, helburu jakin batekin: egoera zail honetan Nafarroaren presentzia indartzea turismo-gune gisa eta bisitariak erakartzea.

Neurri-sorta horretan jarduera hauek barne hartu ziren, besteak beste:

- Nafarroa gune turistiko gisa agertzeko aurkezpenen programa, azken kontsumitzaile izanen diren turistek zuzendua, indarberritzea.

- Turismo merkaturatzen laguntzeko programa bat, turismoaren alorreko bitartekariari zuzendua, abian jartzea.

- Horren baitan, salmentak bizkortzeko programa bat abian jartzea.

- Barne-turismoa bultzatzeko beste sentsibilizazio- eta publizitate-kanpaina bat egitea.

- Sanferminetan bidaiariak Nafarroako ostalderara erakartzeko kanpaina berezi bat egitea hedabideetan.

- Sanferminetan bisitariari arreta eskaintzeko plan berezi bat egitea, “De la fiesta a la calma” programa sustatzeko eta, festaren erakusleirioa baliatuz, Nafarroaren alderdi erakargarriak hedatzeko.

- Nafarroa ezagutarazteko bidaien programa indarberritzea.

- Estatuko turismo-sektore osoan material informatiboa banatzea.

- Maila ekonomiko altuko pertsonak erakartzea xede duen “Privilege Spain” programarako proposamenak aurkeztea.

- Sektoreari, hedabideei eta bisitariari zuzendutako komunikazio-plan berezi bat taxutzea.

Jarduera horien artean, nabarmentzekoak dira merkaturatzea bultzatzeko programa eta, horren baitan, salmentak bizkortzekoak.

Lehen neurri-sorta horren ostean, eta azaroaren 6ko 18/2008 Foru Legea, Nafarroako ekonomia suspertzeko 2009/2011rako neurriei buruzkoa, garatuz, Gobernuak erabaki bat hartu zuen turismoaren alorreko inbertsioak abalen erregimenaren pean egon ahal izan daitezen; izan ere, aipatu Foru Legeak abalak –gehienez 30 milioi eurokoak– ematera baimendu zuen Gobernuak, ekonomia sektore jakin batzuetan egindako inbertsioen finantzaketa errazteko.

Ondoren, Kultura eta Turismo Departamentuak azaroaren 25eko 174/2008 Foru Agindua, inbertsioak finantzatzeko kreditu-eragiketei abalorde moduko laguntzak ematea arautzeko, landu eta argitaratu zuen; laguntza horien jomuga izanen dira indarreko araudian (apirilaren 21eko 79/2008 Foru Agindua) barne hartutako turismo-azpiegiturak sortu eta berritze aldera enpresa txiki eta ertainek (ETE) egindako inbertsioak.

Zalantzak argitu eta ebatzi aldera, Departamentuak berariazko unitate bat, Ekimen eta Sustapen Bulegoak kudeatua, antolatu eta abian jarri zuen.

Turismoaren sektoreari bulego horren existentziaren eta eginkizunen berri eman zitzaion, eta baita harremanetarako telefono-zenbakia ere.

Administrazio-unitate bera arduratzen da informazioa eta aholkua emateaz Instalazio Turistikoak Berritzeko Planean (Turismo arloko Renove Plana) jasota dagoen maileguak erregulatzeko araudiaren

inguruan; aipatu plana Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak jarri zuen abian.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko martxoaren 30ean

Kultura eta Turismo kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Legegintzaldi honen hasieratik hona % 1 kulturala programara aurkeztutako jarduera-proiektuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Román Felones Morrás jaunak galdera egin du Legegintzaldi honen hasieratik hona % 1 kulturala programara aurkeztutako jarduera-proiektuei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko martxoaren 6ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak galdera egin du legealdi hau hasi denetik %1 kulturala programara aurkeztu diren Foru Administrazioari atxikitako jarduketa-proiektuei buruz. Hona hemen Vianako Printzea Erakundea–Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Vianako Printzea Erakundea–Kultura eta Turismo Departamentuak interes handiko zenbait proiektu aurkeztu ditu legealdi honetan %1 kulturala programara.

2008an, Martzillako gaztelua zaharberritu eta egokitzeko proiektua aurkeztu zuen Espainiako Gobernuaren Kultura eta Sustapen ministerioetan. Baldintza guztiak betetzen dituen arren, proiektua ez da onartua izan Kultura eta Sustapen ministerioen arteko batzorde mistoan.

2009ko otsailean, proiektu hauek aurkeztu genizkion Nafarroan Sustapen Ministerioko ordezkari den Alejandro Lara jaunari:

- Iruñeko gotorlekuaren kanpoaldea birgaitzea.
- Lizarrako San Pedro Ruakoa elizaren kanpoaldea birgaitzea.
- Uxueko Andre Maria santutegiaren barrualdea birgaitzea.
- Santakaran, Carako erromatar arkeologia-aztarnategia finkatzea.

Lau proiektu horietatik, lehenengoa bakarrik onartu zen %1 kulturala programarako balizko hautagai gisa, eta, horrenbestez, Kultura Ministeriora bidali genuen.

Vianako Printzea Erakundea–Kultura eta Turismo Departamentuak aurkeztutako proiektuez gain, Sustapen Ministerioak, urrian Errioxan Ondarearen Kontseiluak egindako bileraren ostean, Batzorde Mistoak oraindik baloratu ez dituen espedienteen informazioa bidali zuen. Hauek dira:

- Artaxoa. “El Cerco” aparkaleku publikoa hiritartzea.
- Cascante. Dupla Etxea Birgaitzeko Proiektuaren Idazketagatik ordainsariak.
- Cascante. Dupla Etxea birgaitzea.
- Noain (Elortzibar). Noaingo akueduktua argizatzea.
- Fitero. Monasterioko klaustroa eta klaustroaren gainaldea birgaitzea.
- Tafalla. Kontzepzionista errekoletoen komentua birgaitu eta egokitzea.

Toki-erakundeek zuzenean aurkeztu dituzte eskariok Sustapen eta Kultura ministerioetan, eta ministerio horiekin zuzeneko harremana dute.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamen-

tuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko martxoaren 30ean

Kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Nafarroako herrietan dauden karobiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako herrietan dauden karobiei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko martxoaren 13ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako herrietan dauden karobiei buruz (PES 72/09). Hona Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Ingurumenaren Kalitate Zerbitzuaren artxiboe-tan hori dela-eta jasota dagoen informazio bakarra karea lortze aldera kareharria errausteko labeak dituzten industria-instalazioei buruzkoa da. Informazio hori oinarri, badira karea ekoizteko bi instalazio:

- Titularra: Cal Industrial, S.A. (Calinsa)
 - Herria: Tiebas-Muru Artederreta
 - Egun lanean ari da? Bai
- Titularra: Caleras de Liskar, S.A.
 - Herria: Ledea
 - Egun lanean ari da? Ez

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetze-ko.

Iruñean, 2009ko martxoaren 30ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, eremu mistoan eta euskaldunean irrati-frekuentziak gaitzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du eremu mistoan eta euskaldunean irrati-frekuentziak gaitzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko martxoaren 13ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Luisa Mangado Cortés andreak galdera egin du Nafarroari esleitutako irrati-frekuentziak zabaltzeko aukerari buruz (PES-074/09). Hona Nafarroako Gobernuak eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariaren erantzuna:

Soinuaren maiztasun modulatuak uhin metrikoen bidezko irrati-hedapenari buruzko irailaren bateko 964/2006 Errege Dekretuak 42 lizentzia berri aurreikusi zituen Nafarroarako. Horiei Izabakoa eta Larraungoa gehitu behar zaizkie, 1998ko deialdian eman gabe geratu baitziren.

Nafarroako Gobernuaren ustez, plangintza horrek, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak egina denak, zuzen betetzen ditu foru erki-degoan dauden premiak. Hala eta guztiz ere, Iruñerriari dagokionez, zalantzaren bat sortu da, esparru horretarako bi frekuentzia berri baizik ez baita aurreikusten.

Hori guztia dela eta, Komunikazio zuzendari nagusiak eta Nafarroako Gobernuak eledunaren bulegoak, joan den otsailaren 20an, idazki bat igorri zioten Telekomunikazioetarako eta Informazioaren Gizarterako estatu-idazkariari, eta haren bidez gobernu zentralari eskatu zitzaion Iruñerako aurreikusitako frekuentzia modulatuak irrati berrien kopurua handi zezan.

Gaur arte, ez dugu Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioaren erantzunik jaso, nahiz eta ministerio horretako goi-karguekin izandako elkarriketetan adierazi izan duten ez dutela komenigarritzat jotzen Irrati-hedapeneko Plan Tekniko Nazionala berriz zabaltzea.

Hori guztia adierazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2009ko martxoan

Nafarroako Gobernuak eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Osasun Departamentuak Zangozako osasun etxeko errotulazioa gaztelania hutsean jartzeko arrazoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Osasun Departamentuak Zangozako osasun etxeko errotulazioa gaztelania hutsean jartzeko arrazoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna,

Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko martxoaren 13ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Osasun Departamentuak Zangozako osasun etxeko errotulazioa gaztelania hutsean jartzeko arrazoia buruz (PES-065/09). Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Zangozako osasun etxeko errotulazioa gaztelania hutsean jartzeko arrazoia da eremu ez euskaldunean dagoela, legediari jarraikiz.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2009ko martxoaren 31n

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, A ereduko ikastetxe publikoetako ikasleek lortzen duten gaztelania, euskara eta ingeles mailari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du A ereduko ikastetxe publikoetako ikasleek lortzen duten gaztelania, euskara eta ingeles mailari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko martxoaren 13ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Egindako galderei erantzun aurretik, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak hizkuntza-ereduei buruz eta programa eleanitzei buruz egin dituen okerrak zuzendu nahi ditugu: hizkuntza-ereduek lehen zirenak izaten jarraitzen dute (A, B, G eta D); pro-

grama eleanitzei dagokienez, berriz, bat bakarra dago eta berria da, eta hizkuntzen ikaskuntza integratuan eta hizkuntzaren eta edukien irakaskuntza integratuan oinarrituta dago.

Galderari erantzuteko, jakitera ematen da Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialak koordinatzen duen Bigarren Hezkuntzako programa jarraitzen duten ikasleek ingelesean, frantsean eta euskaran lortu dituzten mailari buruzko emaitzak Nafarroako Eskola Kontseiluaren urteko txostenean jasota daudela.

Hezkuntza sistema arrunteko hizkuntza desberdinetan ikasleek lorturiko emaitzak Hezkuntza Departamentuak emaitza akademikoei buruz lantzen dituen txostenetan ageri dira, eta herritar guztien eskura daude Hezkuntza Departamentuaren web orrian.

Iruñean, 2009ko apirilaren 3an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Galdera, B ereduko ikastetxe publikoetako ikasleek lortzen duten gaztelania, euskara eta ingeles mailari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du B ereduko ikastetxe publikoetako ikasleek lortzen duten gaztelania, euskara eta ingeles mailari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko martxoaren 13ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Egindako galderei erantzun aurretik, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak hizkuntza-ereduei buruz eta programa eleanitzei buruz egin dituen okerrak zuzendu nahi ditugu: hizkuntza-ereduek lehen zirenak izaten jarraitzen dute (A, B, G eta D); pro-

grama eleanitzei dagokienez, berriz, bat bakarra dago eta berria da, eta hizkuntzen ikaskuntza integratuan eta hizkuntzaren eta edukien irakaskuntza integratuan oinarrituta dago.

Galderari erantzuteko, jakitera ematen da Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialak koordinatzen duen Bigarren Hezkuntzako programa jarraitzen duten ikasleek ingelesean, frantsean eta euskaran lortu dituzten maileri buruzko emaitzak Nafarroako Eskola Kontseiluaren urteko txostenean jasota daudela.

Hezkuntza sistema arrunteko hizkuntza desberdinetan ikasleek lorturiko emaitzak Hezkuntza Departamentuak emaitza akademikoei buruz lantzen dituen txostenetan ageri dira, eta herritar guztien eskura daude Hezkuntza Departamentuaren web orrian.

Iruñean, 2009ko apirilaren 3an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Galdera, British ereduko ikastetxe publikoetako ikasleek lortzen duten gaztelania, euskara eta ingeles mailari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du British ereduko ikastetxe publikoetako ikasleek lortzen duten gaztelania, euskara eta ingeles mailari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko martxoaren 13ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Egindako galderei erantzun aurretik, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak hizkuntza-ereduei buruz

eta programa eleanitzei buruz egin dituen okerrak zuzendu nahi ditugu: hizkuntza-ereduek lehen zirenak izaten jarraitzen dute (A, B, G eta D); programa eleanitzei dagokienez, berriz, bat bakarra dago eta berria da, eta hizkuntzen ikaskuntza integratuan eta hizkuntzaren eta edukien irakaskuntza integratuan oinarrituta dago.

Galderari erantzuteko, jakitera ematen da Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialak koordinatzen duen Bigarren Hezkuntzako programa jarraitzen duten ikasleek ingelesean, frantsean eta euskaran lortu dituzten maileri buruzko emaitzak Nafarroako Eskola Kontseiluaren urteko txostenean jasota daudela.

Hezkuntza sistema arrunteko hizkuntza desberdinetan ikasleek lorturiko emaitzak Hezkuntza Departamentuak emaitza akademikoei buruz lantzen dituen txostenetan ageri dira, eta herritar guz-

tien eskura daude Hezkuntza Departamentuaren web orrian.

Programa eleanitz hori jarraitzen duten ikasleak berriaz aipatuz gero, ohartarazi behar da ikasle horiek gehienak Haur Hezkuntzako lehenengo, bigarren eta hirugarren mailan daudenez, ez dela bideragarria ebaluazio kuantitatibo bat egitea eta, nolana ere, erreferentziako mailak ez direla iritsiko Europako Erreferentzia-esparru Komuneiko mailetara. Ikasleak Lehen Hezkuntzako eta Bigarren

Hezkuntzako azken ikasmailetara iritsi diren ikasleekin, familiek hautatu dute Europako Erreferentzia-esparru Komuneiko mailetako kanpoko azterketak egitea, erakunde desberdinek eskaintzen dituztenak eta adinaren arabera bereziki diseinatuta daudenak.

Iruñean, 2009ko apirilaren 3an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Galdera, D ereduko ikastetxe publikoetako ikasleek lortzen duten gaztelania, euskara eta ingeles mailari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du D ereduko ikastetxe publikoetako ikasleek lortzen duten gaztelania, euskara eta ingeles mailari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko martxoaren 13ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Egindako galderei erantzun aurretik, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak hizkuntza-ereduei buruz eta programa eleanitzei buruz egin dituen okerrak zuzendu nahi ditugu: hizkuntza-ereduek lehen zirenak izaten jarraitzen dute (A, B, G eta D); pro-

grama eleanitzei dagokienez, berriz, bat bakarra dago eta berria da, eta hizkuntzen ikaskuntza integratuan eta hizkuntzaren eta edukien irakaskuntza integratuan oinarrituta dago.

Galderari erantzuteko, jakitera ematen da Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialak koordinatzen duen Bigarren Hezkuntzako programa jarraitzen duten ikasleek ingelesean, frantsean eta euskarari lortu dituzten mailari buruzko emaitzak Nafarroako Eskola Kontseiluaren urteko txostenean jasota daudela.

Hezkuntza sistema arrunteko hizkuntza desberdinetan ikasleek lorturiko emaitzak Hezkuntza Departamentuak emaitza akademikoei buruz lantzen dituen txostenetan ageri dira, eta herritar guztien eskura daude Hezkuntza Departamentuaren web orrian.

Iruñean, 2009ko apirilaren 3an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Galdera, G ereduko ikastetxe publikoetako ikasleek lortzen duten gaztelania, euskara eta ingeles mailari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du G ereduko ikastetxe publikoetako ikasleek lortzen duten gaztelania, euskara eta ingeles mailari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko martxoaren 13ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Egindako galderei erantzun aurretik, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak hizkuntza-ereduei buruz eta programa eleanitzei buruz egin dituen okerrak zuzendu nahi ditugu: hizkuntza-ereduek lehen zirenak izaten jarraitzen dute (A, B, G eta D); pro-

grama eleanitzei dagokienez, berriz, bat bakarra dago eta berria da, eta hizkuntzen ikaskuntza integratuan eta hizkuntzaren eta edukien irakaskuntza integratuan oinarrituta dago.

Galderari erantzuteko, jakitera ematen da Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialak koordinatzen duen Bigarren Hezkuntzako programa jarraitzen duten ikasleek ingelesean, frantsean eta euskarari lortu dituzten mailari buruzko emaitzak Nafarroako Eskola Kontseiluaren urteko txostenetan jasota daudela.

Hezkuntza sistema arrunteko hizkuntza desberdinetan ikasleek lorturiko emaitzak Hezkuntza Departamentuak emaitza akademikoei buruz lantzen dituen txostenetan ageri dira, eta herritar guztien eskura daude Hezkuntza Departamentuaren web orrian.

Iruñean, 2009ko apirilaren 3an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Galdera, jakiteko nola egiten den Eliza Katolikoaren eta gizarte-intereseko beste xede batzuen arteko banaketa, zergadunak bi laukitxoak markatzen dituen.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du jakiteko nola egiten den Eliza Katolikoaren eta gizarte-intereseko beste xede batzuen arteko banaketa, zergadunak bi laukitxoak markatzen dituen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko martxoaren 13ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentariaren elkarteko Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du, jakiteko nola egiten den Eliza Katolikoaren eta gizarte-intereseko beste xede batzuen arteko banaketa, zergadunak bi laukitxoak markatzen dituen. Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna:

Espaniako Estatuak eta Egoitza Santuak 1979ko urtarrilaren 3an gai ekonomikoei buruz sinatutako akordioaren bidez ezarri zen "tributu-assignazioa" deiturikoa izanen zela Eliza Katolikoa finantzatzeko bidea; alegia, xede hori hautatzen

duten zergadunen PFEZeko kuota osoaren ehuneko bat emanen zitzaien Elizari.

Estatuak 1979ko urtarrilaren 3ko akordio horren aplikaziotik urtez urte zer zenbateko heldu den ezarri ahal izate aldera, Nafarroako Ogasunak PFEZaren aitorpenerako prestatutako inprimakietan “tributu-asignazioaren” aipamena sartu zuen, zergadunek Eliza Katolikoa finantzatzeko borondatea erakutsi ahal izan dezaten. Baina, jakina, Estatuak finantzatu behar du Eliza Katolikoa, eta ez Foru Komunitateak.

Estatuaren Administrazioak asignazio horren kalkulua egin ahal izateko datuak izan ditzan, Foru Komunitateak Nafarroako biztanleei dagokien tributu-asignazioari dagokion zenbatekoari buruzko ziurtagiri bat ematen dio. Zehazki, ziurtagiri hori urtero arautzen duten ministro-aginduetan azkena irailaren 25eko 2760/2008 ministro-agindua da, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak emana.

Egindako azken ziurtagiriaren kopia doa honekin batera, 2007ko PFEZaren aitopenarena.

Iruñean, 2009ko apirilaren 3an

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Eranskina

PFEZaren tributu-asignazioaren Nafarroako zenbatekoei buruzko 2008ko urriaren 9ko zure idazkiari dagokionez, taula bat erantsi diogu erantzun honi, aitorpenei buruzko gure erregistroetan jasota ageri diren datuekin.

Ondoko datuak jasotzen dira “zurian”, “Eliza”, “beste batzuk” eta “biak” modalitateetan:

- Aitorpen-egileen kopuruari buruzko datuak.
- Erantsitako kuota osoari buruzko datuak, % 0,7aren asignazioaren ehunekoa aplikatu gabe.

Bi modutara eman dira modalitate bakoitzari buruzko datuak: balio absolutuan eta ehunekoan (aitorpen-egile guztien arabera edo 2007ko zergaldiko PFEZaren kuota osoko datuak).

Adeitasunez.

Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzailea: José I. Pérez de Albéniz Andueza

TRIBUTU-ASIGNAZIOA

	NAFARROA-PFEZa/ 2007			
	Aitorpen-egileen kopurua		Kuota osoa, guztira	
	Balio absolutua	%	Balio absolutua (eurotan)	%
Zurian	68.114	%14,72	82.529.440,67	%5,58
Eliza	180.625	%39,02	675.880.058,97	%45,67
Beste batzuk	193.775	%41,87	644.801.590,30	%43,57
Biak	20.335	%4,39	76.838.356,82	%5,19
Guztira	462.849	%100,00	1.480.049.446,76	%100,00

Galdera, ibilgailuetako aurreko eta alboetako leihoetako beira eguzki-fotobabesleak homologatzeko eskumenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du ibilgailuetako aurreko eta alboetako leihoetako beira eguzki-fotobabesleak homologatzeko eskumenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko martxoaren 24ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak informazioa eskatu du Ibilgailuetako aurreko eta alboetako leihoetako beira eguzki-fotobabesleak homologatzeko eskumenari buruz (PES-083/09). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Erreferentziako arauak:

– Ibilgailuei buruzko Erregelamenduko 11.1 eta 11.3 artikulua.

– Zirkulazio Orokorrari buruzko Erregelamendu Orokorreko 19. artikulua.

– Urriaren 9ko 2140/1985 Errege Dekretua. Haren bidez, arau batzuk ematen dira automobil mota batzuk eta ibilgailu horietako atal eta osagai batzuk homologatzeko.

– 2001eko ekainaren 6ko agindua, zerbitzuan diren ibilgailu motordunen alboetako atzeko leihoetako beirei eta atzeko lunetako beirari itsasteko plastikozko xaflek bete beharreko baldintza teknikoak zehazten dituen 2001eko ekainaren 6ko agindua.

Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioa da ibilgailuen eta haien atal eta osagaien homologaziorako agintari eskuduna.

Iruñean, 2009ko apirilaren 10ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

Galdera, Nafarroako III. Enplegu Planari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Nafarroako III. Enplegu Planari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko martxoaren 24ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Nafarroako III. Enplegu

Planari buruz (PES-00080/09). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Lan merkatuaren garapena neurtzeko erabili ohi diren adierazle nagusiak; alegia, ondokoak: enplegu-tasa, langabezia-tasa, okupazio-datuak, kontratuen kopurua eta laneko istripuen eraginaren indizea, hala nola langileen eta langabetuen prestakuntzari buruzko datuak.

2005etik 2007ra bitarteko Enplegu Planaren Jarraipen Batzordea 2005ko urtarrilaren 31n eratu zen.

Ondokoek osatzen dute batzordea

– Nafarroako Gobernuako bi ordezkari: Lan zuzendari nagusia eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailea.

– Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioaren ordezkari bat.

-Nafarroako UGTko ordezkari bat.

– Nafarroako CCOO sindikatuko ordezkari bat.

2005etik 2007ra bitarteko Enplegu Planaren Jarraipen Batzordeak ondoko bilerak egin ditu, eta plana sinatu duten erakundeetako ordezkariak bilera guztietan izan dira.

– 2005. urtea: 10 bilera

– 2006. urtea: 11 bilera

– 2007. urtea: 11 bilera

– 2008. urtea: 11 bilera

– 2009. urtea: 2 bilera

2005etik 2007ra bitarteko Enplegu Planaren Jarraipen Batzordeko kideek ez dute ordainsaririk jaso batzordean parte hartzeagatik.

Batzordea osatzen duten erakundeei ondoko zenbatekoak ordaindu zaizkie, Nafarroako Parla-mentuak urtero onesten dituen aurrekontuetako Enplegu planak prestatzeko eta horien jarraipena egiteko batzordea osatzen dutenei bertan parte hartzeagatik egin beharreko ordainketa” kontusai-laren kargura hain zuzen ere:

	CEN	UGT	CC OO
2005. urtea	30.000 euro	30.000 euro	30.000 euro
2006. urtea	30.900 euro	30.900 euro	30.900 euro
2007. urtea	31.827 euro	31.827 euro	31.827 euro
2008. urtea	52.781 euro	52.781 euro	52.781 euro

III. Enplegu Planaren luzapena iragan abendu-aren 31n agortu zenez, oraindik ez dago planaren ebaluazioari buruzko agiririk.

Batzordea ez denez ez zuzendaritza ez eraba-kitze organo bat, ez dago 2005etik 2007ra bitarte-ko Enplegu Planaren Jarraipen Batzordearen akta berariazkorik; izan ere, batzordearen bileretan ez

da administrazioa edo batzordea osatzen duten eragile ekonomiko eta sozialak behartzen dituen akordio zehatzik hartzen.

Iruñean, 2009ko apirilaren 8an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, Tracasako akziodunetan 2003tik aitzina izandako aldaketei eta aldaketa horien arrazoiei eta irizpideei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Tracasako akziodunetan 2003tik aitzina izandako aldaketei eta aldaketa horien arrazoiei eta irizpideei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 3ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak PES-99 galdera egin du. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Trabajos Catastrales S.Aren (Tracasa) akzioetan 2003tik gertaturiko aldaketak eta gaurko egoera ondoren azaltzen ditugunak dira:

2003. urtean:

- Sozietatearen kapitala: 3.005.060,50
- Akzio kopurua: 50.000
Akzio bakoitzaren balio nominala: 60,101210
- Akziodunak:

Navarra de Gestión para la Administración, S.A.
Akzio kopurua: 49.998
Zenbatekoa: 3.004.940,30
Parte-hartzearen ehunekoa: 99,9960%

Navarra de Servicios, S.A.
Akzio kopurua: 2
Zenbatekoa: 120,20
Parte-hartzearen ehunekoa: 0,0040%

2004. urtean:

- Sozietatearen kapitala: 4.171.324,51
- Akzio kopurua: 69.405
Akzio bakoitzaren balio nominala: 60,101210
- Akziodunak:

Navarra de Gestión para la Administración, S.A.
Akzio kopurua: 69.403
Zenbatekoa: 4.171.204,31
Parte-hartzearen ehunekoa: 99,9971%

Navarra de Servicios, S.A.
Akzio kopurua: 2
Zenbatekoa: 120,20
Parte-hartzearen ehunekoa: 0,0029%

2005. urtean:

- Sozietatearen kapitala: 5.310.182,34
- Akzio kopurua: 88.354
Akzio bakoitzaren balio nominala: 60,101210
- Akziodunak:

Navarra de Gestión para la Administración, S.A.
Akzio kopurua: 69.403
Zenbatekoa: 4.171.204,31
Parte-hartzearen ehunekoa: 78,5511%

Navarra de Servicios, S.A.
Akzio kopurua: 2
Zenbatekoa: 120,20
Parte-hartzearen ehunekoa: 0,0023%

Nafarroako Foru Komunitatea
Akzio kopurua: 18.949
Zenbatekoa: 1.138.857,83
Parte-hartzearen ehunekoa:

2006. urtean:

- Sozietatearen kapitala: 11.310.146,20
- Akzio kopurua: 188.185
Akzio bakoitzaren balio nominala: 60,101210
- Akziodunak:

Navarra de Gestión para la Administración, S.A.
Akzio kopurua: 69.403
Zenbatekoa: 4.171.204,31
Parte-hartzearen ehunekoa: 36,8802%

Navarra de Servicios, S.A.
Akzio kopurua: 2
Zenbatekoa: 120,20
Parte-hartzearen ehunekoa: 0,0011%

Nafarroako Foru Komunitatea
Akzio kopurua: 118.780
Zenbatekoa: 7.138.821,69
Parte-hartzearen ehunekoa: 63,1187%

2007. urtean:

- Sozietatearen kapitala: 17.310.110,14
- Akzio kopurua: 288.016
Akzio bakoitzaren balio nominala: 60,101210

– Akziodunak:

Navarra de Gestión para la Administración, S.A.

Akzio kopurua: 288.001
Zenbatekoa: 17.309.208,62
Parte-hartzearen ehunekoa: 99,9948%

Navarra de Servicios, S.A.

Akzio kopurua: 2
Zenbatekoa: 120,20
Parte-hartzearen ehunekoa: 0,0007%

Nafarroako Foru Komunitatea

Akzio kopurua: 13
Zenbatekoa: 781,32
Parte-hartzearen ehunekoa: 0,0045%

2008. urtean:

- Sozietatearen kapitala: 19.310.098,06
- Akzio kopurua: 321.293
Akzio bakoitzaren balio nominala: 60,101210

– Akziodunak:

Navarra de Gestión para la Administración S.A.

Akzio kopurua: 321.278
Zenbatekoa: 19.309.196,54
Parte-hartzearen ehunekoa: 99,9953%

Navarra de Servicios, S.A.

Akzio kopurua: 2
Zenbatekoa: 120,20
Parte-hartzearen ehunekoa: 0,0006%

Nafarroako Foru Komunitatea

Akzio kopurua: 13
Zenbatekoa: 781,32
Parte-hartzearen ehunekoa: 0,0040%

Iruñean, 2009ko apirilaren 3an

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, Nafarroako Gobernuaren eta finantza-entitateen arteko lankidetzaz hitzarmenaren kariatara Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak baimendutako maileguei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuaren eta finantza-entitateen arteko lankidetzaz hitzarmenaren kariatara Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak baimendutako maileguei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 3ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuaren eta finantza-entitateen arteko lankidetzaz hitzarmenaren kariatara Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak baimendutako maileguei buruz. Hona Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitzako kontseilariaren erantzuna:

2009ko martxoaren 31ra bitarte 8.812 mailegu baimendu dira, 1998ko itunaren babesean.

Urtea	Esleitutako etxebizitzak	Baimendutako maileguak
2009	269	335
2008	1.673	938
2007	2.426	674
2006	3.149	972
2005	1.492	310
2004	2.575	179
2003	1.806	444
2002	625	1.004
2001	759	1.122
2000	1.672	1.097
1999	1.150	937
1998	1.967	800

Adierazi beharra dago etxebizitza esleitzen denetik erosketa formalizatzen den arte (eta ondorioz mailegua eskatzen den arte) 2 edo 3 urte inguru pasatzen direla.

Epe horretan Etxebizitza Zerbitzuan eskatutako mailegu guztiak baimendu dira.

Ez dakigu zenbat esleipen-hartzailek eskatu duten beste mailegu bat, eta finantza-entitateek

ez digute jakinarazi mailegu kualifikaturik ukatu izana.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2009ko apirilaren 8an

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: José Carlos Esparza Sáez

Galdera, Nafarroako Gobernuaren eta finantza-entitateen arteko lankidetzaz hitzarmenaren kariatara banketxeek emandako eta ukatutako maileguei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuaren eta finantza-entitateen arteko lankidetzaz hitzarmenaren kariatara banketxeek emandako eta ukatutako maileguei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 3ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuaren eta finantza-entitateen arteko lankidetzaz hitzarmenaren kariatara banketxeek emandako eta ukatutako maileguei buruz. Hona Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitzako kontseilariaren erantzuna:

2009ko martxoaren 31ra bitarte 8.812 mailegu baimendu dira, 1998ko itunaren babesean.

Urtea	Esleitutako etxebizitzak	Baimendutako maileguak
2009	269	335
2008	1.673	938
2007	2.426	674
2006	3.149	972
2005	1.492	310
2004	2.575	179
2003	1.806	444
2002	625	1.004
2001	759	1.122
2000	1.672	1.097
1999	1.150	937
1998	1.967	800

Adierazi beharra dago etxebizitza esleitzen denetik erosketa formalizatzen den arte (eta ondorioz mailegua eskatzen den arte) 2 edo 3 urte inguru pasatzen direla.

Epe horretan Etxebizitza Zerbitzuan eskatutako mailegu guztiak baimendu dira.

Ez dakigu zenbat esleipen-hartzailek eskatu duten beste mailegu bat, eta finantza-entitateek

ez digute jakinarazi mailegu kualifikaturik ukatu izana.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2009ko apirilaren 8an

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: José Carlos Esparza Sáez

Galdera, Iruñerriko bionergia arloko enpresa bati 600.000 euroko abala eman izanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Iruñerriko bionergia arloko enpresa bati 600.000 euroko abala eman izanari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko martxoaren 24ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitakko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du "Nafarroa abala" izeneko bat Iruñerriko bioenergiako enpresa bati emateari buruz (PES-82). Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Eskatutako informazioa babestuta dago, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Legean ezarritakoari jarraituz. Horrenbestez, ez da bidezkoa informazio publikoa ematea espediente administratibo partikular bati buruz.

Iruñean, 2009ko apirilaren 8an

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak asmorik duen Gergitiaingo San Martin eliza Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Lehen Hirurteko Planean sartzeko.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko ea Nafarroako Gobernuak asmorik duen Gergitiaingo San Martin eliza Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Lehen Hirurteko Planean sartzeko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 3ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko ea Nafarroako Gobernuak asmorik duen Gergitiaingo San Martin eliza Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Lehen Hirurteko Planean sartzeko. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Ondareari buruzko Lehen Hirurteko Plana Nafarroako Gobernuak eta PSN-PSOEek sinaturiko

akordioaren emaitza da, eta 2009ko urtarrilaren 27an eman zen argitara. Haren helburua da ondarearen arloko lehentasunak eta lan egiteko lerro nagusiak eta irizpideak ezartzea.

Aurrerago, 2009ko martxoaren 17an Nafarroako Parlamentuan eginiko agerraldian azaldu zen, eta egun hartatik Nafarroako Gobernuaren webgunean kontsultatu daiteke.

Aipatu planean, 2008-2010 urteetan garatuko diren esku-hartzeak zehaztuta daude. Zalantzarik gabe egin beharreko jarduerak dira, kultur interesotzat jotako ondasunen multzoetan egin beharrekoak, eta lan egiteko programa zabal baten barrenean.

Oraingo planean, ez da aurreikusi beste jarduerarik gehitzea. Hala eta guztiz ere, planaren hurrengo edizio batzuetarako aurreikus litezke.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2009ko martxoaren 14an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria